

EUSKARAZKO IRAKASKUNTZ ETA IKERLANA EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO ZUZENBIDE FAKULTATEAN

Jon Arrieta

1. HIZKERA JURIDIKOA ZUZENBIDE MUNDUAN ETA GIZARTEAN

Hizkera juridikoaren ezaugarrien artean garrantzitsuenak aipatzerakoan, honako hauek ekarri beharko genituzke:

- a) Hizkera *espezialdua* da.
- b) Goi-mailako egituraren kokatzen da.
- c) Finkatzeko denbora asko behar du, hau da, tradizioaren bidez eraikitzen da.
- d) Ikastetxe berarizkoetan irakatsi izan da, orain bezala, XII. mendetik aurrera, aditu bereziak sortuz, gizartearen gune erabakiorretan kokatzen direnak.

Azken finean, zuzenbidea gizarteak beharrezkoenetakoa duen tresna da, eta dagokion hizkuntza propioaren bitartez adierazten da. XIX. mendera arte Europan latina izan zen kultura juridikoaren hizkuntz eramaile orokorra, toki bakoitzeko hizkuntza propioak beren heldutasunerako ildoan abiatzen ziren bitartean, zuzenbidearen munduan balio egokiaren hila.

Euskara bere lehen pausoak ematen ari da behar duen garapenari begira, bai hizkera juridikoaren lanketan, bai etorkizuneko jurista profesional euskaldunen prestaketan. Kontutan hartzekoa da etorkizuneko administrazioa, justizia, eta, orohar, zuzenbidearen egikaritza elebidunerako Euskal Herrian behar diren juristek, heziketa on bat behar dutela izan, eta horretarako gure komunitatean zuzenbidea lantzen duten ikastetxeetatik ateratzen diren promozioek emango dute etorkizunean behar den eragin biderkatzailea: epaileak, notarioak, fiskalak, abokatuak, administrazio-funtzionarioak, eta, orohar, zuzenbide munduan aritzen diren profesional guztiak. Horien eskuetan egongo da euskara juridikoa berari dagokion giroan normaltea.

2. HIZKERA JURIDIKOA ETA EHUko ZUZENBIDE FAKULTATEA

Hizkera juridikoa eta, bereziki, hizkera administratiboak duen garrantzia kontutan hartuz, Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultatea arlo horietan bete behar diren helburuei begira, beharrezko pausoak ematen saiatu da.

Aipaturiko helburuak zehatzago azaltzeko, honako arloak bereiz ditzakegu:

1. Zuzenbidearen euskarazko dozentzia. Ikasleen formazioa: jurista elebidunen formazioa.
2. Irakasleen formazioa. Ikasgai bakoitzeri dagokion hizkuntz-juridiko arloa behar bezala landu ahal izateko osatu behar diren lan-taldeak sortzea.
3. Testugintza. Apunte eta testu-liburuen prestakuntza. Itzulpenak. Zuzenbide munduan erabili behar diren material idatzien prestaketa: testu normatiboak, jurisprudenzia, etab.
4. Euskarazko hizkera juridikoa lortzeko egin beharreko ikerlana eta praktika, terminologia juridikoan, jatorrizko hizkuntza juridikoaren sortze lanean, itzulpengintzan eta abar.

3. IRAKASKUNTZA ELEBIDUNA: IRAKASLEAK

Helburu horiei begira, gaurdaino bete diren faseak esan daiteke "eraikuntzaren" oinarrei dagozkiela. Fakultateak, ikasleak jurista elebidun onak bihurtzeko medioak jarri nahi izan ditu. Horretarako irakasle talde egokia sortu nahi izan da. Azken finean, beraz, lehen helburua, jurista elebidunak sortzea ikasleen formazio egokiaren bitartez, bigarrenarekin, hau da, irakasleen formazioarekin, guztiz lotua dago, baina bigarrenaren menpean jartzen da, irakasle egokiaren bidez soilik lortu daitezkeelako irakaskuntza eta ikerlan maila onekoak.

Ikuspegi honetatik, gaur egun datu zehatz bat eman dezakegu: Zuzenbide ikasketek osatzen dituzten 25 ikasgai guztietan daude irakasle elebidunak. Guztira, irakasle elebidunak 30 dira eta honela sailka daitezke: 4 irakasle titular; 26 irakasle asoziatu.

Beraz, argi dago karrera akademikoan finkatu gabeko irakaslegoa dela nagusi, zeren eta 26 asoziatu hauetatik 8 bakarrik dira zuzenbidearen arlo ezberdinetan lanean ari direnak fakultetetik kanpo. Horrek adierazten digu gainontzekoak, 18 irakasle, irakasle-lagun kontratuarekin bada ere, beren formazio-bidean daudela une honetan. Are gehiago, tesia egiten ari dira 18 horiek, batzuk besteak baino aurreratugoa dutelarik. Honekin lotuta dagoen beste datu bat: azken lau urte hauetan 16 irakasle elebidun kontratatuta dira, eta hauetatik 14 daude tesia egiten.

Datu hauetatik atera daitezkeen ondorioetatik, azpimarragarrienak honako hauek lirateke:

- a) Irakaslego elebidunaren erdia baino gehiago:
 - oso gaztea da.
 - formazio fasean aurkitzen da.
 - tesia egite lanetan murgildua dago, nahiz eta irakaskuntza ardura zehatzak izan, denak irakasten baitute beren ikasgaia.
 - EHUko Zuzenbide fakultetetik atera dira gehienak (15, 18 tesi-egile horietatik).

Formazio-fasean dagoen irakaslegoaren datu objektiboak hauek izanik, esan behar da, halaber, horrelako irakasle talde elebiduna doktoregorako bidean egoteak, etorkizunari begira oso espektatiba itxaropentsuak dakarzkigula. Urte gutxi barru, doktoregai hauek irakasle eta ikertzaile helduak izango dira, bakoitzak bere arloan dagokion fruituak emateko prest.

- b) Irakasle-lagunak (asoziatuak).

Guztira 7 dira, dedikazio partzialeko kontratuak dituztelarik. Bi, ekonomilariak dira; beste bi profesional libreak (bat Z. Penalean eta bestea Z. zibilean aritzen direlarik); bat aholkulari juridikoa; bat fiskala eta beste bat epailea. Beraz, asoziatu hauek esparru interesgarria betetzen dute eta beren aportazioa premiazkatat jo daiteke, zuzenbide-ikasketetan ikuspegi praktikoak daukan balioa kontutan hartuz.

- d) Irakasle finkatuak.

Beren karrera akademikoa finkatuta daukaten irakasleak, doktoregoa eginda eta titularizara iritsitakoak, gutxi dira: lau baino ez. Irakaslegora iristeko ez dute egin arestian aipatutako irakasle gazteen bide akademikoa, eta beren kabuz lortu dute irakaskuntza elebidunean artzeko gaitasuna.

4. IKASLEAK

Lerro elebidunean pasa den kurtsoan maila bakoitzean matrikulatuta egon den ikasle-kopurua jakitea, aski izan daiteke aspektu honen berri zehatza izateko:

Lehenengo mailan: 140 (bataz besteko, lau asignaturetan).

Bigarren mailan: 140 (bost asignatura)

Hirugarren mailan: 112 (bost asignatura)

Laugarren mailan: 99 (sei ikasgai)

Datorren kurtsoan, 1993-94an, martxan jarriko da bostgarren mailako talde elebiduna, hiru ikasgai (Nazitarteko Z. Pribatua, Merkatal Zuzenbidea II eta Zuzenbide Zibila IV) euskaraz irakatsiko direlarik.

5. EUSKARA JURIDIKOAREN SORTZE ETA GARAPENA

Euskara juridikoaren kontzeptua ez da irakaskuntzaren muga barruan bukatzen, baizik kontzeptu askoz zabalagoa da, Zuzenbide Fakultateko irakasleok beste arlo batzuetara garamatza, hizkuntza normalkuntza prozesu bat gauzatzen ari den Komunitate honetan.

Administrazio arloan erabiltzen diren adierazbide-molde-rik gabeko hizkuntzen erakutsi dute, historiari eta esperientziari berak azaltzen duelarik, zein nolako garrantzia duen hizkuntza horren normalkuntzarako Administrazio arloko hizkuntza espezialduaren sortze eta erabilera.

Euskal Komunitate Autonomoa ahalegin inportanteak egiten ari da helburu honi begira, euskararen garapenerako Euskal Herri osoan erabakiorrak izan daitezkeenak. Zuzenbide Fakultatea prest dago eta jadanik lanean ari da honako arlo hauetan: terminologia oparoa sortzen, hitz eta kontzeptuen arteko baliokidetzaren egokitasuna ziurtatzen, hizkuntza-esamolde eta estilo juridiko euskaldun berezkoa prestatzen.

Unibertsitateak lan hauetan ihardutzeko ikertoki egokiak eduki behar ditu. Sail eta disziplina juridikoei prest egon behar dute, beren irakasle eta ikertzaileen bitartez, helburu horiek betetzeko. Irakaskuntza mailan ez bada derrigorrezkoa *guztia* euskaraz ikastea, *arlo juridiko guztietan* behar dira, aitzitik, ikerlariak eta jatorrizko produkzio juridikoa, euskaraz idatzita, emango dutenak. Horregatik, ez bakarrik irakaskuntza-arrazoiengatik, ematen diogu hain garrantzi handia irakasle eta ikerlariaren formazioari, arestian azpimarratu dugun bezala. Beren lantokiak euskara juridikoaren sortze eta garapenerako laborategiak dira, eta Unibertsitatea izan behar da bertan eta kanpoan horrelako eginkizunetan dabiltzan guztien topaketa gunea.

Zeregin guzti horiek hizkuntza-normalkuntzarako eman behar diren urratsak dira, batez ere tradizio juridikoaren oinarriak jartze-lanetan ari garela kontutan hartuz. Egin behar diren ahaleginei begira, helburu horren mamiaren kontzientziak berak guretzat euskarri bat izan behar du, eta arazo honetaz egin daitezkeen edozein gogoetan, bizitzen ari garen prozesu honen balore historikoa, orain arte gertatugabekoak duen indarrarekin, begien aurrean izatea komeni zaigu.